

Baita ere lau dronda motako fusil baten harri zati bat aurkitu zen.

Euskal Herriko Harrespiletan egin diren indusketak arkeologikoetan agertutako materialaren txirotasunak Mulisko Gainean ere eskasak diren materialekin parekatzea zaila egiten du.

Iadanik esan dugu ez dela zeramika zatirik aurkitu, baina honi buruz azpimarragarria da gaur arte hauek ez direla ugariak monumentu hauetan.

J. Blot-ek Ipar Euskadin berriki eginiko indusketetan metalki-ale bakar batzuk aurkitu ditu, Oianle-

ku I-ean 1976ko indusketan zehar bezala. Mulisko Gaineko multzoan material honetaz eginiko tresnarik ez da idoro.

Suharriak berriz, indusketako harrespiletako batzutan jaso dira, baina ez ugari. Gure kasuan, indusketa-lanak hartu duten hedadurari esker, haundiagoa izan da lortu den suharri-kopurua, nahiz tresnena txikia izan. Hauen artean ugariak marruskak dira.

Azkenik azpimarragarria da multzo megalitikoan aurkitutako suharri gehienak oso txikiak izatea.

VIII. Egiturak

X. PEÑALVER

Multzo megalitiko hau osatzen duten monumentu ezberdinen indusketak lehen ezkutuan zeuden mota ezberdinetako egiturak ager araztea ahalezko egin du.

Landare-estalkia kendu ondoren, eta industeko egin diren azal konbentzionaletan zehar, hareharri horiz osaturiko anderakuntza-zorua azaleratu arte, nahiz peristalitoak nahiz monumentu hauen barne edo kanpo-egiturak agertzen joan dira. Halaber, hor ezarriak zeuden ikatzen banaketa-era determinatu ahal izan da.

Zista eta bera inguratzen duen tumuluan egin diren lanak datu-sail bat eman digute eta orain xehe-tasun guztian deskribatuko ditugu.

Harrespil 1.a

Harrespil honetan, bertako hareharri horizko anderakuntza-zoruaren gainean ezartzen dira hareharri gorritzko lekukoak eta mota berdineko harriz daude kaltzatuak.

Monumentu honen barnealdeari dagokionean, landare-estalkia kendu ondoren, eta 2. eta 3. azaletan, ia monumentuaren oinaldera iritsi arte, lekukoen mota berdineko harri ugari, gehienak angeluarrak, aurkitu dira M aldean, batez ere Ñ5, Ñ7, Ñ9, 07 eta 09 laukietan.

Bestalde, IM.eko muturrean ere, Q9 eta R9 laukietan, harri ugari agertzen da. Hauek hurrengo azalean desagertzen hasten dira, bertako zorua pixkanaka monumentu osora zabaldu arte.

Kimuak (ikatz-zatiak), neurritz txikiak, monumentuaren barnealdean erregulariki banatzen dira (Irud.

1.4), kontzentrazio haundiagorik duen unerik nabarmendu gabe. Aztarna hauek behe-azaletan agertzen dira (4.engoan batez ere), bertako zorutik — monumentuaren oinarria — zentimetro bakar batzutarara. Bestela, monumentu honek ez du aurkezten inolako egiturarik.

Harrespil 2.a

Monumentu honen lekukoak hareharri horiz osaturiko anderakuntza-zoruaren gain ezarriak daude, baina honetarako zangarik ireki gabe.


Bere barnealdean, 0,004 m-ko 7 azal konbentzionaletan industua, ikusi ahal izan zen sakontzen zen bezala nola neurri txikiko harriak ugaritzen zindoazen, 0,27 m-ko sakontasunean bertako-zorua, aztarnategiko beste zonaldeetakoaren ezaugarri berdina dituen, azaleratu arte.

Lekukoen ondoan, nahiz barnealdean nahiz kanpoaldean, tamaina ertaineko harri ugari da, baina monumentuaren barnealdean ez zen inolako egiturarik agertu.

Harrespilaren barnealdeko puntu batzutan kimu-zatitxoak bildu ziren, eta ez zegoen kontzentrazio haundiagorik zuen zonalderik. Zuhaitz-ipurdien presentziak nahikoa zaildu zuen lan hau.

Harrespil 3.a

Monumentu honetako lekukoen ezartzea beste monumentukoetatik ezberdin egin zen. Kasu honetan, harlauzak zuzenki anderakuntza-zoruaren gain apoiatu ordez, 0,22 m-ko zabalera duen zanga estu-



Irud. 8.1. Harrespil 1aren oinplanoa.

baten bidez bertan 0,22 m-ko sakontasunean sarturik daude. Ondoren lekukoak kaltatzeko asmoz, hauetan harrespilaren barnekaldera ematen zuen aurpegietan egin zen betelana, zanga ireki zen anderakuntza-zoruko harriak baino haundiagoak ziren beste batzuk erabiliaz.

Monumentuaren barnealdeko zona, gutxigorabehera 0,04 m-ko lodierako 5 azaletan industu zen, harreari horizko anderakuntza-zorura iritsi arte.

Harrespilaren barnekaldeko muturrean eta goiazala jaitsi ondoren, lekuko nabarmenenaren ondoan zegoen egitura bat agertuz joan zen. Arraultz itxurako barne-esparru hau harkosko ugarik eta bertikalki tinkatutako harlauza batzuk osatzen dute. Egitura honen IH norabideko diametroa 1,80 m-koa da eta EM alderantzkoa 1,10 m-koa.

Barnekaldeko beste zonaldeetan, lekukoaren gertuan, hauen material berdineko printzatar haundien itxura duten tamaina ertaineko harri ugari agertu zen.

Bestalde, lekukoaren inguruan, eraztun bat osatzera iristen ez diren tamainu haundiagoko beste harri batzuk ere badaude.

Barne-egitura osatzen duten harriek beraien oinaldea 4 azalean galtzen dute, anderakuntza-zoruaren bakar batzutara, hau indusketa-eremu guztietara hedatzen

Kimuak monumentuaren zonalde gehienetara zabalitzen dira. Eskasak dira H aldean, eta esparru zirkularretik at, batez ere I aldean kokatzen dira.

Ikatz-zati hauek edo kimu hauetako gehienak anderakuntza-zoruaren distantzia txikira agertzen dira, gutxigorabehera 0,07 m. lehenagotik 0,02 m-tara arte, nahiz kasu bakar batzutara pixka bat geroago ere agertu.

Deskribatutako zonaldean dagoen harrespilaren barneko egitura zirkularrean ikatz-kontzentrazio haundiagoa bereiztu ahal izan zen.

Harrespil 4.a

Monumentu hau gehiena suntsitua zegoenez ez zen izan industerik, soilki 3 lekuko zutik eta barne-esparruaren zatitxo bat gelditzen bait ziren.

Zista

Egitura honek, indusketa-lanak hasi aurretik, soilki, I aldeko muturrean duen harlauza haundi bat, beste une batetan deskribatua, eta neurri txikiko 7 harlauza aurkezten zituen, lehen aipatutakoarekin H aldetik itxi gabeko esparru kuadrangeluar bat eratuz. Hauek, bai neurri haundiko harlauzak bai txikikoak zoruan tinkatuak zeuden.

Landare-estalkia eta gutxi gorabehera 0,04 m-ko aurreneko azal konbentzionala industu ondoren,


esparru kuadrangeluar bat osatzen joan ziren beste harlauza bertikal berri batzuk agertu ziren. Bestalde, I aldeko harlauza haundiarekin paraleloki, forma kuadrangeluarreko esparrua bai zati laukizuzen berdinetan banatuko zuen beste harlauza bat aurkitu zen. H aldeko erdian esparru laukizuzenaren azalera gehinera hedatzen zen neurri nahiko haundiko harri zapal bat aurkitu zen.

Egitura honen inguruan, eta 3 m-ko erradioan tumulutotzat har daitekeen harri ugari agertzen joan zen. Hauen neurriak 0,20 m. eta 0,30 m. tartean daude, nahiz kopuru txikian 0,50 m-tik 0,70 m-tara gehiengo-luzera bezala dituztenak ere egon.

Hurrengo azal konbentzionalan zistaren esparru bikoitza geroz eta gehiago ixten zihoazen bertikalki ezarritako harlauza berriak agertzen joan ziren. Hauetan haundienak gutxi gorabehera 0,50 m-ko lu-



Irud. 8.2. Harrespil 2aren oinplanoa (5. azala).



Irud. 8.3
Harrespil 3aren
oinplanoa
(4. azala).

zerakoak ziren, 0,20 m. eta 0,30 m. tartekoak zirelarik beste batzuk. Bi esparru laukizuzen hauen barnean, indusketa-lanak aurrera zindoazen bezala bi harlauza bereiztuz joan ziren. Hauek barnekalde osora hedatzen ziren baina oraindik neurri batetan behintzat harri txikiago batzuz estalirik zeuden.


Tumuluari dagokionez, azal honetan ere harriak jarraitzen zuten.

Hirugarren azalean tumulua eratu eta partzialki harlauzak estaltzen zituzten harri guztiak dibujatu eta kendu ondoren, aipaturiko egitura bikoitza erabat mugaturik gelditu zen, bai bera mugatzen zuen har-

lauzei bai barne-espazioak okupatzen dituzten bi estalkiei dagokienez (Irud. 8.4).

Azal berri honek, kasu batzutan, harri haundia-koak aurkezten ditu, 0,40 m. eta 0,50 m-ko luzera-koak gutxi gorabehera, nahiz gehienak txikiagoak izan.

Tumulu honetan, bai zistaren I alderantz 1,55 m-tara bai 1,50 m-tara IE eta E alderantz bertikalki tinkatutako 10 harri zeuden. Horrela, pentsa daiteke, agian, zista inguruan zirkulu bat osatzen zutela (Irud. 8.5).



Irud. 8.4. Zista eta tumuluaren oinplanoa (3. azala).

Tumuluko beste harri-azal bat jaitsi ondoren eta bertako bi harlauzak altza ondoren emaitza hauek lortu ziren:

I aldeko laukizuzenean, eta azalera gehienera hedatuaz harlauzaren euskarri ziren harlauza zapal sail bat agertu zen. H esparruaren M-era kokatzen den

harlauza zapal bakar batek ondoko esparrukoaren ezaugarri berdinak ditu. Gainerantzeko azalera estaltzen zuen lurrak aztarnategiko beste ingurutakoen berdina da, hots, harroa eta hareatsua, eta une batzutan hareharri horizko anderakuntza-zorua azalertzen hasi zen.

Tumuluari dagokionean, momentu honetan harri gehienak 0,50 m. eta 0,70 m tarteko luzera dute eta jadanik anderakuntza-zoruko hareharriak une batzutan badira.

Esparru bikoitzeko harri zapalaren azpian, eta 0,05 m-ko sakonera anderakuntza-zorua hedatzen joan zen eta tumuluaren zegoen aipaturiko harri azalpean hau bera gertatu zen.


Indusketan zehar zisten barne aldeko bi esparruetan, hauek estaltzen zituzten harlauza zapalen azpian, kopuru txikian baina erregulari banatuta, kumuak azalduz jarraitu zuten. Egitura inguratzen duen tumuluaren azpian ikatz-aztarnak noizbehinka bakarrik agertzen ziren txikiak eta harrespiletakoen antzekoak.

Beste egitura batzu

III. atalean, deskribapenari buruzkoan, harrespil 1.aren HMra dauden gutxi definitutako bi egitura aipatzen dira. Lehenengoak 7 lekuko ditu, 1 aldeko arkua deitu diezaiotkegun zatia eratzen dutenak, eta bere diametroa, gutxi gorabehera, 0,093 m-koa da.

Bigarregoa, iparraldeko zonaldean, tinkatutako bost harriz inguratuta dagoen harri-metaketa batez dago erata.

Bi egitura hauek, beraien helburua adieraz dezakeen daturik ez dute eskaini, baina aipagarria da suharri-printza kontzentrazio haundiagoa aurkitzen dela aurreneko aipaturikoaren barnean.



Irud. 8.5
Zista eta tumuluaren oinplanoa (4. azala).



Arg. 8.1. Egitura zirkularra harrespil 3an.




Arg. 8.3. Zista azala jaitsi ondoren.



Arg. 8.4. Aztarnategiaren hegoaldeko egitura.



Arg. 8.2. Zista indusketa hasi berritan.



Arg. 8.5. Harrespil 3ko lekuko ezartzea.



Arg. 8.6. Aintzinan hautsitako lekukoa eta ondoren berriztatua.

IX. Ondorioak

X. PEÑALVER

Orain arte deskribatzen joan garen multzo megalitikoaren indusketa, ondo definituriko sei monumentuz eta zalantzazko interpretazioa duten beste biz osatua, hasiera batean plangintzatuta genuen bezala eraman da aurrera, hau da, egitura eta hauen tartean zeuden zonaldeak industuz.

Euskal Herriko harrespilei buruzko ikerketaren barnean multzo honek duen garrantziaz oharturik, beharrezkotzat jo genituen lan hauei buruz kontsiderazio bakar batzuk egitera goaz.

Protohistoriari dagokion K.a. I. milurtean, garai honetakoa dugu multzo megalitikoa, Euskal Herriko isurialde Atlantikoko biztanleen bizimoduari buruz informazio gutxi dugu. Esparru murrudun bakar batmen aztarnak, gaur egun indusgai direnak, eta haitzuloetako maila batzuk dira, soilki, biztanleen ohiturei buruzko iturri bakarrak.

Baina, ehorzketa-munduak gaur arte zonalde oso mugatura hedatzen denak, orain ikergai den monumentuen motakoak kontserbatuak ugari direnez, in-

formazio gehiena ematen digu, nahiz hau baldintza ezberdinak dituelako ez izan oso ugaria.

Mulisko Gaineko ehorzketa multzoen kokapenak pentsa arazten du hauen eraikitzaileek aziendentzako larre bila maiz ibiltzen zirela inguru hauetan eta abelazkuntza zela iharduera nagusia. Hau, toki hauek duten altitudeagatik iharduera hemen urte sasoikoa izatera behartuko zuen. (Gipuzkoan harrespil-multzoen indize nagusia 600 eta 700 m. tartean, aurkitzen da, Nafarroan berriz altitude hau 1.100 eta 1.200 m. tartean kokatzen da, 500 eta 1.200 m. tartean dauden 69 multzo katalogatuetatik 65 azken probintzia honetan aurkitzen dira. Mulisko Gaineko multzoa, berriz, Gipuzkoako indizearen behetik aurkitzen da, 415 m.tara.

Monumentu hauetan, kasu honetan bezala, multzoaren eraiketarako mendi-hegal bateko zapalda aukeratzea nahiko sarritan ematen da (Gipuzkoan, 22 multzoetatik 5etan), baina muino eta lepoak dira toki aukeratuenak.